



Donostiako Kontxa hondartza, iazko abuztuko irudi batean. GORKA RUBIO / FOKU

2025eko
ekainaren 6a,
ostirala
XVI. urtea
678. zenbakia
Prezioa: 0,50€

Gipuzkoako Foru Aldundiak diru laguntza handiagoa emango die kostaldeko udalei udako denboraldiaren gastuei aurre egiteko. Donostiako Zurriola hondartzako sorosleek ohartarazi dute materiala falta zaiela. 2-3

Akordioa hondartzak kudeatzeko



Haimar Zubeldia: «Nire kirol ibilbidea luzea izan da, eta zorteko sentitzen naiz horregatik»

ELKARRIZKETA, 4-5



Hernaniko Emakumeentzako Jabetze Eskolaren 20. urteurrena ospatuko dute gaur

PROPOSAMENA, 14-15

Odile Bourguignon Goñi

Gipuzkoako Foru Aldundiak eta kostaldeko udalek akordio bat sinatu dute hondartzen kudeaketaren harira. Aldundiko Jasangarritasun Sailak orain arte baino 4,1 milioi euro gehiago jarriko ditu 2027. urtera bitarte, hondartzetako funtsezko zerbitzuak finantzatzeko. Alazne Txurruka Debako alkateak eta Haritz Alberdi Getariakoak «eskuz esku» egin dute lan akordioa lortzeko, baina biek esan dute «akordio integral» bat nahi dutela eta helburua ez dela bete.

Orain arte, Gipuzkoako hondartzen kasuan, udal bakoitza arduratzen zen bere udalerriaren barruko hondartzak kudeatzeaz. Azken urteotan, Hondartzen Lurralde Mahaian bildu izan dira Gipuzkoako Foru Aldundiarekin. Mahai horretan eman izan diote hasiera udako denboraldiari, eta hartan eztabaidatu dute, halaber, zeinena den hondartzen kudeaketarako eskumena.

Kostaldeko udalerriek diputazioari eskatzen diote kostuak oso-osorik bere gain har dezala. Helburua bete ez bada ere, 2027ra bitarte aldundiak diru kopuru jakin bat banatuko du udalerrietako biztanle kopuruaren arabera, kostuak ordaintzeko. Getariak, adibidez, estalitako kostuaren %80 jasoko du, Mutrikuk, Debak eta Oriok, %75; Zumaiak, %60, eta Zarautzek eta Hondarribiak, %50. Horretarako, aldundiak urtero jarritako 2.650.000 euroek gehigarriak izango dituzte, eta horiekin ordainduko dira diru laguntzak. Aurtengo udan, 700.000 eurokoa izango da gehigarria, eta 2026an eta 2027an, 1.700.000 eurokoa. Debako alkate Txurrukak esan du diru funtsak «lasaitua» ekarriko diela udalei: «Aurrerapauso handia izango da. Bizkar gainean generaman zama arinduko digu. Hala ere, aldundiaren proposamenak zerbait falta du osotasunera iristeko». Donostiako Udala akordiotik kanpo dago, bere kabuz kudeatzen baititu hiriko hondartzak.

Aldaketak kudeaketan

Garbiketa zerbitzua aldundiaren esku egon da azken urteotan, baina ez ibai bokaleetako hondartzetan metatu ohi den hondakinen kudeaketa. Hortaz, datozen urteetan, funtsezko zerbitzuak finantzatzeko gain, Orio, Deba, Zumaiak eta Mutrikuko hondartzetan ibaiak eramandako hondakinen



Getariako hondartza, artxiboko irudi batean. GETARIAKO UDALA

Aldundiak esku hartu du hondartzetan

Gipuzkoako diputazioak lau milioi euro baino gehiago jarriko ditu hondartzen kudeaketarako, maiatzetan sinatutako akordio bati esker. Debako eta Getariako alkateek «poza» agertu dute.

kudeaketa ere diputazioaren esku egongo da. Txurrukak adierazi du urteetan eskatu dutela esku hartze hori: «Badakigu hondartzen kudeaketa udalaren eskumena dela, baina kontu bat da kudeaketa, eta beste bat, kostua. Aspaldidanik eskatu dugu kostua aldundiak har dezala bere gain».

Debako alkateak dio askotariko zerbitzuak kudeatzen dituztela udan, eta urtero 360.000 euro inguruko kostua ekartzen diola udalari. «Jendeak pentsatu izan du hondartzak denon artean ordaintzen ditugula, baina hori ez da horrela. Hondartzetako zerbitzuen kostuak, hondartza duten udalerrietako biztanleek ordaindu izan ditugu». Orain arte aldundiak garbiketa zerbitzua kudeatu izan du, eta zenbait diru laguntza eskaini ditu udako zerbitzuekin laguntzeko, baina ez da nahikoa laguntza izan, Txurrukaren aburuz: «Orain arteko diru laguntzek ez digute modurik eman udako



«Orain arteko diru laguntzek ez digute modurik eman udako zerbitzuen kostuari aurre egiteko»

ALAZNE TXURRUKA
Debako alkatea

«Aldundiak kudeaketa integrala bere gain hartzea da gure helburua, baina ontzat jotzen dugu akordioa»

HARITZ ALBERDI
Getariako alkatea

«baliabide gehiago» behar direlako, Alberdik jakinarazi duenez. Dena den, udalak helburutzat duen arren hondartzan herritar orok baldintza berak izatea, alkateak argitu du gaur-gaurkoz ez dela hala izaten, «bitarteko mugatuak» dituztelako.

Hala, Getarian bainu egokituaren zerbitzua uztaila eta abuztua bitarte egon izan da zabalik, eta horren beharrik izan ez duten herritarrek ekaina eta iraila bitarte eskuragarri izan dute sorospen zerbitzua. «Zerbitzuari kalitatea emateko, bestelako proposamen bat behar genuen» aitortu du Alberdik. «Horregatik daramatzagu horrenbeste urte aldundiaren esku hartzea eskatzen. Guztionak dira hondartzak, eta, beraz, guztiona den instituzio batek kudeatu behar ditu». Nolanahi ere, aldundiak iazko udan Getarian bainu egokituaren ardura hartu zuen, baita inbertsio bat egin ere, eta Alberdik dio erabiltzaileek «asko eskertu» zutela.

Getariako alkateak azaldu du Gipuzkoako Batzar Nagusiek ere aldundiari bi bider eskatu diotela hondartzen kudeaketa integrala bere gain hartzeko, baina aldundiak ez duela eskaera onartu. Halere, Alberdik dio «pozik» daudela lortutako akordioarekin, eta «gorestekoa» dela udalerrien arteko elkarlana. «Aldundiak kudeaketa integrala bere gain hartzea da oraindik ere gure helburua, baina ontzat jotzen dugu akordio hau lortu izana». Txurruka Debako alkateak ere «poza» agertu du: «Kostaldeko udalerrietako alkateok elkarlanean ados jartzeko gaitasuna izan dugu, alderdi desberdinetakoak izanda ere. Gure udalerriei mesede egiteko behar ditugunak adostu ditugu, eta poztekoa da lortutako akordioa». ●

zerbitzuen kostuari aurre egiteko».

Alberdi Getariako alkateak adierazi duenez, hondartzetan sorospen bidezko segurtasuna egotea «normaltzat» jotzen den arren, udalek jartzen dute dirua, eta, gainera, aldundiak diru laguntzak ematen dituenetik kopurua ez dela «ia ezer igo». Esaterako, Alberdik dio sorospen zerbitzuaren kudeaketaren kostua «ikaragarri garestitu» dela.

Guztienak eta guztientzat

Getarian bainu egokituaren aldeko apustua egin zuten orain urte batzuk; horretarako, lankidetzan aritzen dira udala eta Gurutze Gorria. «Herritar guztiok edozein baldintza edukita ere, eskubide berak izan behar ditugu hondartzez disfrutatzeko», esan du alkateak. Baina sorospen zerbitzu egokituak kostu gehigarri bat ekarri dio Getariako Udalari, «langile gehiago» kontratatu eta



Donostiako Zurriola hondartzako sorosleen instalazioak, ekainaren 1ean. HITZA

Sorosleen lanari «garrantzia» emateko eskaria

Mikel Ianzi Donostiako Zurriola hondartzako sorosleen arduradunak salatu du ez dagoela behar beste baldintza sorospen zerbitzu egoki bat emateko.

Odile Bourguignon Goñi

Donostiako hondartzetako sorosleek salatu dute materiala falta zaiela eta instalazioetan higiegi falta dagoela. Esaterako, Mikel Ianzi Zurriolako sorosleen arduradunak esan du «samingarria» dela euren lanari garrantzirik ez ematea. Ianzi 2010etik dabil sorospen zerbitzuan lanean.

Donostiako sorosleak urteetan ari dira lan baldintzen alde borrokan. Ianzik dio 2017an hasi zirela antolatzen lan kontratuak hobetze aldera: «Sorosle batek 1.000 euro baino gutxiago irabazten zituen, ez zegoen aldizkako finko izateko aukera, eta subrogaziorik ere ez genuen. Gainera, hondartza bakoitzean arduradun bakarra zegoen». 2018ko abuztuan greba egin zuten aldarri horiei jarraikiz, eta salatu zuten materialak hobekuntzak behar zituela.

2019an, BPXSport enpresak hartu zuen Donostiako hondartzak kudeatzeko eskumena, eta hasiera-hasieratik harremana desagokia izan zela kontatu du Ianzik: «Ontziek ez zuten beha-

rezkoa den titulua, eta geldirik izan genituen. Halere, ondo zeudela zioten, baina itsas kapitaintzak arrazoia guri eman zigun».

Akordio bat sinatuta bukatu zuten 2018an abiatutako greba, nahiz eta «ez ziren bermatu» eskatutako baldintzak, Ianzik dioenez. Izan ere, sorosleak esan du herrialdeko udalek lan kontratuen hobekuntzak onartu zituztela, baina ez Donostiakoak. Ondorioz, pandemia garaian kaleratzeak izan ziren hiriburuko hondartzetako

taldean: «Enpresarekin izandako liskarregatik lau langile kaleratu gintuzten. Auzitara jo, eta epaiketarik irabazi egin genituen». Ianzik azaldu duenez, geroztik, aldizkako finko eta subrogazioa «bete beharreko baldintzak» dira. Iaz lan hitzarmen berri bat lortu zuten.

Sorosleen hainbat eskari

Aurten Donostiako hondartzen kudeaketaz NEO Instalaciones Deportivas SM enpresa arduratuko da. Aldaketak ondorio batzuk ekarri dituela aitortu du Ianzik: «Ekainaren 1ean lan egutegirik gabe geunden, eta ez genuen ontzirik [bi uretako motor eta quad bat falta dira]. Hondartzen koordinatzaileak esan zigun zerbitzua ohiko moduan emateko, baina ez nuen horren ardura hartu nahi izan, ez baitzegoen nahikoa baldintza». Hortaz, Ianzik Zurriolan bandera gorria jarri hasi zuen udako denboraldia. Gainera, salatu dute megafoniak ez zuela funtzionatzen, baita botika kutxa eta instalazioak iazko urritik desinfektatu gabe zeudela ere. Horregatik, Zurriola hondartzaren erdialdean jarri ziren sorosle guztiak, eta abisua pasatu zioten koordinatzaileari.

Ekainaren 1ean, Mikel Ianzik sorosleen izenean idatzi bat bidali zion hondartzen kudeaketaz arduratzen den enpresako koordinatzaileari, «egoera azaltzeko» eta «udaleko norbaiten kontaktua» eskatzeko. Ez du erantzunik jaso. «Zerbitzu profesional bat eskaini nahi dugu, baina zaila da eskura ditugun baldintzekin. Jokoa dago jendearen segurtasuna; lehenengoak gara norbaitek laguntza behar badu hura artatzen, eta lehenengoak pertsona horrek beharko dituen ondorengo zerbitzuak kudeatzen», esan du Zurriolako arduradunak. «Garrantzia eman behar zaio sorosleen lanari». ●



«Hondartzen koordinatzaileak zerbitzua ohi bezala emateko esan zigun, baina ez nuen horren ardura hartu nahi izan»

MIKEL IANZI

Donostiako Zurriola hondartzako sorosleen arduraduna

Intza Trula Larburu

ZARAUZ— Bi gorpilen gainean egin du bidea Haimar Zubeldiak (Usurbil, 1977). Txirrindulari ibilbide profesionala amaitutzat eman bazuen ere duela urte batzuk, mundu horri estu lotuta dago oraindik. Orain buru-belarri dabil mendiko txirrindularitzan, eta errepidean ere ibiltzen da, senideekin. Maitasun handiz gogoratzen ditu Euskaltel Euskadi taldean bizi izandakoak.

Profesional izateari utzi bazenion ere, oraindik baduzu arrakasta. Izan ere, duela bi asteburu zure omenezko martxa zikloturista antolatu zuten, eta mila txirrindularik parte hartu zuten.

Zarauzko Zikloturista Elkarteak antolatzen du lehiaketa hori, eta Gipuzkoako zaharrena da. Lasterketak hainbat izen izan ditu sortu zenetik hona, eta 2018. urtean martxari nire izena jartzea proposatu zidaten. Urtero-urtero saiatu gara zerbitzu on bat ematen Haimar Zubeldia Klasikoko parte hartzaileei, etxera sentsazio on batekin joan daitezen eta hurrengo urtean errepikatze gogoia izan dezaten. Mimo handiz prestatzen dugun zerbitzu bat da, eta edizioak aurrera joan ahala gero eta txirrindulari gehiagok ematen dute izena.

Zuk ere urtero parte hartzen duzu Haimar Zubeldia klasikoa.

Ez da derrigorrezkoa nik lasterketa horretan parte hartzea, baina gakoa da, nire ustez. Goi mailatik kanpo banabil ere, txirrindularitzaren munduan jarraitzen dut, nahiz eta lehen baino askoz ere lasaiago aritzen naizen. Beraz, gustu handiz parte hartzen dut Haimar Zubeldia Klasikoan, eta asko gozatzen dut lehiakideekin hitz egiten, bizikletaren gainean kilometroak egiten ditugun bitartean. Aldi bakoitzean bizpahiru lagun omentzen ditugu; aurreko, esaterako, Ainhoa Muruak, Gorka Izagirrek eta Luis Leon Sanchezek jaso dute aitortza, eta polita izan zen jendeak haiek ezagutzeko tartea hartzen zuela ikustea.

Mendiko bizikletarekin zabilta orain, eta nazioartean lehiatu zara, hala nola Titan Desert, Tena Valley, Epic Gran Canaria eta Kroaziako 4Islands probetan. Nolako izan da errepideko bizikletatik mendikora pasatzea?

Profesional modura, errepideko bizikletan ibili izan naiz beti, baina denetik probatzea gustatzen zait. Goi mailan lehiatzen aritu nintzen urteetan oso zentratuta

«Ileak tente jartzen zaizkit Euskaltelen bizi izandakoak gogoratzean»

HAIMAR ZUBELDIA

Txirrindulari ohia

Haimar Zubeldiak beste modu batera bizi du txirrindularitza profesionalki lehiatzeari utzi zionetik. Mendiko probak egiten ditu orain, eta etxekoekin batera errepideko txirrindularitzaz gozatzeko tartea ere hartu ohi du.

ibili nintzen, eta mendira ere joaten nintzen, prestaketa gisa. Hala eta guztiz ere, beti izan dut buruan ibilbide profesionala amaitzean mendiko bizikletan zertxobait gehiago ibiltzen hastea, baita beste hainbat gauza probatzea ere. Orain, mendiko bizikletan buelta bat ematera irtetea abentura modura hartzen dut.

Gaur egun sumatzen al duzu Frantziako Tourrean sortzen zenean marea laranja haren falta?

Bai, noski. Uste dut euskal txirrindularitzak baduela zorte handi bat; izan ere, gure kulturaren oso barneratuta daukagu, nahiz eta, beste leku askotan bezala, futbolak agintzen duen hemen. Euskaldunongan txirrindularitzak leku polita du, eta gaur egun Tourra ikustera joaten naizenean horixe da sentitzen dudana. 2017. urtean utzi nion profesional bezala lehiatzeari, eta harrezkeroztik urtero joan nahiz Tourra ikustera. Horrek badu arrazoi bat: ikusle bezala itzuli nahi nuen, Tourra kanpotik bizi ahal izateko, gaztea nintzenean bezala. Etxekoekin joaten naiz orain; gure urteroko hitzordua da.

Zer izan ziren zuretzat Euskaltelen igaro zenituen urteak?

Uste dut garai hartan ez nintzela jabetu bizitzaren ari nintzen guztiaz eta neukan zorteaz. Euskaltelen oso momentu politak bizi izan nituen, eta taldearen parte ginenok ikusi genuen marea laranja hori nola joan zen hazten. 1998an hasi nintzen han. Talde txiki bat zen, txirrindulari oso gazteekin osatutakoa. Pixkanaka-pixkanaka, gu hazten joan ginen bezala, taldea ere indarra hartzen joan zen, eta gauza asko lortzen hasi ginen. Dena den, garai hartakoa oraingoaren aldean bestelakoa zen. Guk Tourrean parte hartzeko aukera izan genuen, eta sekulako urteak izan ziren. Adibidez, gogoan dut 2003an Iban Mayok Alpe d'Huezeko etapa irabazi zuen unea, baita hurrengo bi urteetan sailkapen orokorrean bosgarren eta seigarren postuak lortu genituela ere. Fenomeno eder bat bezala deskribatuko nuke, eta berezia da norbera horren parte izatea. Oraindik ileak tente jartzen zaizkit Euskaltelen bizi izandakoak gogoratzen ditudanean. **Astana eta Radioshack-Trek tal-**



«Euskaltelen egoteak lagundu zidan irekiagoa izaten, eta beste taldeetan mundu zabalago bat ezagutu nuen»

«Alaba zaharrenari txirrindularitza gustatzen zaio, eta niri irribarrea ateratzen zait horretan pentsatze hutsarekin»

deetan aritu zinen gero. Garai hartan, Lance Armstrongekin izan zinen taldean.

Euskaltelen 11 urte egin ondoren sentitu nuen nire zikloa amaitu zela, eta beste txirrindularitza bat ezagutzeko gogoia piztu zitzaidan. Etxeko txirrindularitza bat ezagutzen nuen ordura arte; denok euskaraz hitz egiten genuen, ehun kilometroren bueltan bizi ginen denok... Taldea aldatzeko aukera eman zidaten, eta salto hori emateko une egokia zela pentsatu nuen. Beldurra ere sentitu nuen, noski, Euskaltel niretzat etxeko taldea baitzen, baina uste dut jendeak ondo ulertu zuela nire erabakia. Aukera izan nituen beste talde batzuk ezagutzeko, eta aprobeztatu egin nuen. **Nolako izan zen aldaketa?**

Anekdotak modura, beti kontaktzen dut Astanara iritsi nintzen lehen kontzentrazio eguna. Ameriketara joan behar genuen, eta hegazkinen atzerapenak zirela eta, berandu iritsi nintzen. Goizeko ordu biak aldera heldu nintzen gelara, eta nire gelakidea lo zegoen ordurako. Hurrengo egunean ezagutu genuen elkar; hura





INTZA TRULA

MOTZEAN

- **Lasterketa bat?** Tourra, inongo zalantzarik gabe.
- **Paraje bat?** Gehien gustatzen zaidan parajea Errezilgo igoera da. Nire bizitzan gehien igo dudun portua da.
- **Entrenatzeko konpainia perfektua?** Nire anaia.
- **Zure ibilbide profesionaleko lasterketarik gogorrena?** Tourra. Asko gozatu dut, baina baita sufritu ere, egoera pertsonala edota profesionala zela medio.
- **Oraindik betetzeko duzun amets bat edo erronka bat?** Txirrindularitza profesionala amaitzean bete nahi nituen ametsen zerrenda bat dut, eta ari naiz betetzen. Baditut oraindik egin nahi ditudan lasterketak...
- **Zein, adibidez?** Patagonia inguruan dagoen bat. Mundua ezagutu nahi dut bizikletaren aitzakian.


kazakha zen eta ingelesez ahal genuen moduan komunikatu ginen. Nolabait esateko, ezezagun batekin egin nuen lo lehen egun hartan, eta ni ohituta nengoen gela nire anaiarekin partekatze-
ra. Urte hartan, Tourreko taldean Lance Armstrong eta Alberto Contador bezalako izen handiak zeuden, eta sekulakoa da haien alboan zaudela konturatzea.

Zer irakaspen eman dizu goi mailako txirrindularitzak?

Askok ikasi nuen pertsonalki. Euskaltelen egoteak balio izan zidan irekiagoa izateko ere, eta gero egon nintzen taldeek aukera eman zidaten mundu are zabala-
go bat ezagutzeko. Garai hartan, gainera, txirrindularitza globalizatzen joan zen; ez ginen soilik Europan lehiatzen, mundu mailan baizik. Munduko hainbeste lekutan ibiltzeak asko zabaltzen ditu norberaren ideiak, eta horrek asko eman dit niri.

Zaila izan al zen gorenera iristeko egin beharreko ibilbidea?

Naturalki bizi izan nuen, pixkanaka heldu zen prozesu baten gisara. Uste dut profesional modura nire kirol ibilbidea luzea



ZUBELDIA ANAIAK. Haimar —goian— eta Joseba Zubeldia anaiek bizikleta gainean egin dute ibilbidearen parte handi bat. Elkarrekin aritu ziren Euskaltel txirrindularitza taldean, eta bidea «erraztu» zien horrek, Haimarrek dioenez. Irudian, Zubeldia anaia, Euskalteko txandala jantzita, 2005ean, Zarauzko hondartzan. HITZA

izan dela, eta zorteko sentitzen naiz horregatik. Kontratu guztiak segidan iritsi zaizkit, bata bestearen atzetik, eta oso eskertuta nago hala izan delako. Ez dut lesio larriarik izan, eta horrek are erraztu egin dit bidea.

Joseba Zubeldia anaiarekin hasi zinen txirrindularitzan.

Anaiak dena erraztu dit, eta uste dut hark ere antzeko zerbait bizi izan zuela nirekin. Biok Euskaltelen geundenean, Usurbilen bizi ginen, nahiz eta sasoi hartan Zarautzera bizitzera joan nintzen ni. Egutero elkartzen ginen, umeak ginenean bezala, eta lasterketetan banekien alboan izango nuela. Anaia baten konfiantza infinitua da, eta denerako izan nuen alboan, baita hark ni ere. Hala, momentu txarrei askoz ere errazago egin nien aurre. Euskaltelen ere bazen familia izpiritu hori, oso ondo moldatzen baiki-
nen guztiok.

Badirudi alaba zaharrenak lekukoa hartuko dizula. Nola bizi duzu hori?

Gure bi alabek gorpilen gainean ezagutu naute, profesionala nintzenean jaio zirelako. Lasterke-

tetara joaten ziren, gure familian kirola oso gogoko dugun zerbait delako. Zaharrenak txirrindularitza maite du, eta horrekin ez dut esan nahi gazteenak maite ez duenik, baina beste kirol batzuk ere atsegin ditu; eskubaloia eta saskibaloia, adibidez. Guk kirola egitera animatzen ditugu. Izan ere, niri kirolak asko eman dit, balio batzuk irakatsi dizkit, eta, beraz, uste dut kirolean hezteak baduela eragina pertsona bategan. Alabek aukeratu behar dute zer egin nahi duten, eta nik beti lagunduko diet desio dutena betetzen. Zaharrenari txirrindularitza gustatzen zaio, eta niri irribarrea ateratzen zait horretan pentsatze hutsarekin. Ahal dugunetan elkarrekin joaten gara entrenatzera, eta momentu politak bizitzen ditugu, neure burua alabarengan islatuta ikusten dudalako. Gaztea nintzeneko uneak etortzen zaizkit gogora, eta, modu batera edo bestera, pauso berberak ematen ari garela sentitzen dut. Ez dakit hemendik urte batzuetara zer gustatuko zaion, baina badakit kirolak zerbait irakatsiko diola. ●

Errutina, bizitza, gerra



IRITZIA

Leire Narbaiza Arizmendi

Ez dakit zuetako inor ohartu den azkenaldian dena dela errutina. Gimnasioan egin beharreko errutina, azala zaintzeko errutina, aurpegia garbitzeko errutina... Dena ingelesezko berbaz zipriztinduta, edo melatuta. Orain arte, ordea, errutina kontu askoz korrienteagoa

zen, aspergarria, eguneroko bizimodua aurrera ateratzeko manera. Jaiki, prestatu, erre-kaduak egin, jatorduak atondu, etxea garbitu, lan egin, zaindu ume zein zaharrak... Bizitzari eustea, hitz baten.

Esan dudan eran, errutina bada aspergarria, dena behar den lez irteten bada, sorpresa gutxikoa. Egunero buruhauste txikiak badira, ez dakigu zer prestatu bazkaltzeko, garbigailua jarri ezinda gabiltza euria delako, medikuarenera eroan beharra zaintzen dugun hori. Eguneroko horrek energia handia kontsumitzen du, eta espazioa buruan. Baina ez gaude kexatzeko, munduan milioika pertsona daude-eta ezinean dabiltzanak.

Gerra bizi dutenak, esaterako. Nolako da zibilen errutina? Lanera joaten ote dira? Umeak eskolara? Beti galdetu izan diot neure buruari; izan ere, historia ikasliburuek zergatiak, batailak,

gerra fronteak eta estrategiak kontatzen dizkigute, inoiz ez jendearen guda bizimodua. Filmek ere kontakizun horiek bistaratu dizkigute: soldaduz betetako eszenak, emakume bakoak, tiroak, bonbak eta odola jaurtitzen. Non dago jende arruntaren errutina? Amamak Gernikako bonbardaketa bizi izan zuen, eta txikitatik kontatu izan zigun zer egin zuten, nora jo, zer sentitu zuten... baina ostekoaz ezer gutxi, hura ere oso traumatikoa izan ote zelako?

Egun errutinario baten, bazkaltzeko zer kozinatu ez nekiela, gogaitu samar nengoelako, Mikel Aiestaranek bere sare sozialetan eguneroko argitaratzen duen erretratua etorri zitzaidan burura: Gazako menua, egun horretan familia batek lortu duena jateko. Eta nire kezka hutsala begitandu zitzaidan. Nolako ote da Gazako palestinar horien errutina? Zelan lortuko dituzte jakiak? Lortutako hori

Eguneroko horrek energia handia kontsumitzen du, eta espazioa buruan. Baina ez gaude kexatzeko, munduan milioika pertsona daude-eta ezinean dabiltzanak

zelan gertatu? Nola garbitu arropa, gorputzak? Ba ote dago zaintzen duten ume edo zahar hori medikuarenera eroaterik? Errutina makabroa.

Era berean, Israelgo biztanle bat imajinatu nuen. Bere errutinari jarraitzen, jatorduak prestatzen, garbigailuak jartzen, zaintzen duen hori medikuarenera eroaten... Gogotik pasatuko ote zaio gazatarren errutina? Jatorduak prestatu ezinda, garbitu barik, medikuarenera ezin eroanda zaintzen duen hori...? Zer ote du buruan bere estatuak gosez eta indarrez hiltzen

diharduenean milioi bi pertsona? Merezki dutela? Pertsonak ez direla, akabatu beharreko parasito izurria dela? Errutinan murgildutako israeldar horri ez ote da konturatuko bere aitita-amamei egin zietenaren antzekoa egiten dabilela bere gobernua? Hannah Arendten *gaizkiaren hutsalkeria* kontzeptuaren baieztapena ote?

Gazatik milaka kilometrora gaude, baina gurean ere beste alde batera begiratzen dugu; Gipuzkoako Eibarko udal gobernuak kasurako, ez due-lako baimenik eman mural bat egiteko Gazaren alde, eta mozio bat eztabaidatzeare ere ezezkoa. Netanyahu kontu eske etorriko zaien beldur, ala?

Errutinak jan egiten gaitu, eta erosotasunak bertan gozo egotera bultzatu. Halere, ezin isildu. Bazkaria prestatu, arropak garbitu, zaindutako hori medikura eroan... Itzuliko al da errutina Gazara! ●

HITZ GUTXITAN



Aitortza Teresa del Valle antropologo feministari

HONDARRIBIA— Hondarribiko Alardeko Jaizkibel konpainia parekideak Teresa del Valle ikerlari eta antropologo feminista saritu zuen gaur zortzi —Del Valle apirilean hil zen—, «Euskal Herrian antropologia feministaren atea zabaltzeagatik». Hondarribia Berdintasunaren Hiria saria eman zioten. Irudian, Del Valleren senideak, saria jasotzen, Jaizkibel konpainiako kide batzuekin, Hondarribiko Itsas Etxean. GORKA RUBIO / FOKU

ESALDIA

«Ez dago atzera begira geratzerik; txapel gehiagoren bila joango naiz»

JOKIN ALTUNA

Pilotaria, buruz buruzko txapelduna



DATUA

3

Ertzaintzak hiru lagun atxilotu zituen astelehenean, Lezon, droga trafikaren aurka egindako operazio batean. Atxilotuetako bat ihes egiten saiatu zen, eta Ertzaintzaren ibilgailu bat jo zuen autoarekin.

Igandean egingo dute Gipuzkoako Eskola Txikien Festa, Ezkio-Itsason

EZKIO-ITSASO— Gipuzkoako Eskola Txikien 36. Festa egingo dute igandean, Ezkio-Itsason. Antolatzaileek esan dute ospatzeko eta aldarrikatzeko eguna izango dela, baita herri eta auzo txikietan eskola izateak duen garrantzia nabarmentzeko ere. Askotariko ekintzak izango dira: perkusio tailerra, sormen gunea, puzgarriak...

Euskal musikaren nobedadeak,
ostiralero, zure posta elektronikoan,
bi astez behin



BADOKen buletina

Azken kantuak, bideoak, albisteak eta zerrendak.

[Badok.eus/buletina/](https://badok.eus/buletina/)

HARPIDETU!

BADOK



← Argizaiola batzuen irudiak, Joseba Urretabizkaia eta Fernando Hualderen *Argizaiola* liburuan.
JOSEBA URRETABIZKAIA

↓ Elena Arrese arte komisarioa eta Joseba Urretabizkaia argazkilaria, maiatzaren 26an, Altzo Azpiko elizan. AITOR ARROYO



ko informazio pila dute, eta hori eskuratu egin behar dugu, baliteke eta luze gabe galtzea». Historialariak Jose Alonso Amezketa-ko tailugilea zena elkarriketatu zuen lanerako, eta adierazi du «bereziki hunkigarria» izan zela harekin hitz egitea. «Jose Alonsok benetan erabili ziren argizaiolak zizelkatu zituen, ez apaingarri gisa erabiltzen zirenak. Gauza asko kontatu zizkigun elkarriketetan; zoragarria izan zen».

Egileek nabarmendu dute *Argizaiola* liburua «landutako pieza bat» dela. «Edizio zenbakitua izango da, kalitate handikoa. Artelan bat da», esan du Urretabizkaia argazkilaria. «Ondeari balioa emateko ariketa bat da. Garrantzia ematen diegu galtzear dauden ohiturei eta elementuei, eta lanak modua emango dio jendeari horretaz jabetzeko».

Kultur asteburua

Urretabizkaia eta Hualdek gaur aurkeztuko dute lana, 19:00etan, Altzo Azpiko Olazabalgo Salvatore elizan. Aurkezpenaren aitzakian, Elena Arrese arte komisarioak kultur asteburu bat antolatu du igandera bitarte. Ekitaldia *Ipuskoa, Izanetik izena*. 1025-2025 egitasmoaren barruan antolatu dute, eta helburua da *Gipuzkoa* hitzaren lehen aipamen idatziaren milurtekoa ospatzea eta euskal kulturaren ondarea zabaltzea. «Bi aldiren arteko lotura da argizaiola: bizitzaren eta heriotzaren edota iraganaren eta etorkizunaren artekoa», esan du Arresek. «Lotura hori oso interesgarria da ikuspuntu etnologikoari eta artistikoari dagokionez».

Igande arratsaldean, Amezketa-ko zortzi emakumek argizaiolen erritua irudikatuko dute performance batean. «Elizako sarrera irudikatuko dute, argizaiolak piztu, eta ogiaren eskaintza egin», kontatu du komisarioak. Ondotik, kantu gregorianoen emanaldia egingo du Donosti Ereski abesbatzak. «Argizaiolak piztuko dituzte performancean, eta abesbatzaren emanaldiak iraun bitartean piztuta izango dituzte».

Donosti Ereskik ez ditu nolanahiko abestiak interpretatuko. Oñatiko Bidaurretako monasterioan aurkitutako *1502ko Hildakoen Ofizioa* transkribatu eta egokitu dute okasiorako, kantu liburuko bertsioa errespetatuta. *Hildakoen Meza Gregonianoa* ere prestatu dute. Arreseren ustez, Donosti Ereskirena «proiektu bereziki esanguratsua» da, bi lanak euskarara egokitu baitituzte —*1502ko Hildakoen Ofizioa* eta *Hildakoen Meza Gregonianoa*—, Nikolas Ormaetxea Orixen idazlearen itzulpenetatik abiatuta. ●

Iraganeko argiak betikotzea asmo

Joseba Urretabizkaia argazkilaria eta Fernando Hualde historialaria «Argizaiola» liburua ondu dute; «memoria berreskuratzea» izan dute helburu.

Aitor Arroyo Askarai

ALTZO— Antzinako herri ohiturak, hileta errituak eta argizaiolak ardatz hartuta, *Argizaiola* liburua osatu dute Joseba Urretabizkaia argazkilaria eta Fernando Hualde historialaria. Euskal Herriko seihun argizaiola baino gehiagoren irudiak bildu dituzte, eta irizpidea izan da inoiz «benetan erabilitako piezak» izatea, eta «ez apaingarri huts» gisa erabilitakoak. Egileek esan dute lana ez dela argazki bilduma bat soilik; izan ere, glosario bat osatu dute argizaiolaren inguruko hitzekin, bai eta testuinguru historiko, linguistiko eta soziala jaso ere. Liburua aurkezteko, «kultur asteburu bat» antolatu dute gaurtik igandera bitartean Altzon. Askotariko jarduerak izango dituzte Azpiko Olazabalgo Salvatore elizan.

Urretabizkaia dio *Argizaiola* «dokumentazio grafiko gehien» duen liburuetako bat izango dela. Lana osatzeko, Euskal Herriko hainbat museotako bildumak har-

tu dituzte kontuan: Irungo Gordailukoak, Donostiako San Telmo museokoak, Bilboko Euskal Museokoak, Nafarroako Julio Caro Baroja Museo Etnologikokoak, Baionako Euskal Museokoak eta Pirinioetako Museokoak (Lourdes, Okzitania). Bilduma pribatuetak piezak ere jaso dituzte, hala nola Bergarako Vitoriano Larrañagarenak eta Fernando Hualdek Izaban duen El Sabaiao arte gunekoak (Nafarroa).

Urretabizkaia eta Hualdek argizaiola motak sailkatu dituzte lanerako: antropomorfoak, lau hankakoak, egurrezko xafla hutssezkoak eta soilik argizariz osatutakoak. Lourdesko museoan aurkitutako zenbait piezak, esaterako, ez dute egurrik, eta argizarizkoak dira guztiz. Horrez gain, hiletetako zenbait elementu ere jaso dituzte; besteak beste, oiha-lak, hobiak eta argimutilak.

Argazki bilduma osatu ez ezik, argizaiola mota bakoitzari buruzko informazioa jaso du Hualde historialaria, bai eta testuingu-

ru linguistikoarekin glosario bat ondu ere. Azaldu duenez, «memoria berreskuratzea» izan du asmo. «Ondarea jasotzea izan da helburua, arlo materialean zein immaterialean. Argizaiola funtsezko elementu bat da euskal kulturaren, eta desagertzen ari da. Berez, desagertuta dago dagoeneko, Amezketa bakarrik eusten baitiote ohiturari». Argizaiolen erritua nolakoa zen ere azaldu dute lanean: nola eramaten zuten sua etxetik elizara, nola pizten ziren argizaiolak, eta emakumeek erritu horretan zer rol zuten. «Argizaiolak erabiltzeko ohituran bada arima argizatzeko asmo moduko bat, beste bizitza baterako bidaia argitzekoa... Matriarkatu bat ere badago, emakumeen ardua baitzen erritua gauzatzea».

Hualdek esan duenez, proiektuaren beste helburuetako bat zera da, ahozko jakintza jasotzea eta ondarea galtzen ez dela ziurtatzea. «Gure helburua jende helduarengana iristea da. Bizirik dauden artxiboak daude: sekula-



«Funtsezko elementu bat da argizaiola, eta desagertzen ari da. Amezketa bakarrik eusten diote ohiturari»


FERNANDO HUALDE

Historialaria

«Garrantzia ematen diegu galtzear dauden ohiturei, eta lanak modua emango dio jendeari horretaz jabetzeko»

JOSEBA URRETABIZKAIA

Argazkilaria



← Biocruces institutuko onkologia pediatrikoko taldea, Bilbon. Rikardo Lopez, goian, eskuinetik hasita, hirugarrena. HITZA



«Saiatzen gara ikusarazten zer lan egiten dugun elkartean eta zeren alde borrokatzen garen»

NORA GARAI

Juneren Hegoak elkarteko kidea

«Medikamentu pertsonalizatuak ematea da Lopezen proiektuaren helburuetako bat», esan du Nora Garai elkarteko kidea.

Biocruceseko taldeak sarkometa oinarritzen du ikerkuntza. «Banatu ditugun azken beka guztiak haien zaindare izan dira, gogor egiten baitute lan euren bidean», dio Garaik. Haren ustez, «eskertzekoa» da hori. «Sarkomak detektatzeko eta tratatzeko minbizi zailenak dira, eta Biocruceseko kideak pixkanaka-pixkanaka aurrera doaz halakoak detektatzeko lanetan».

«Juneren gurasoei, alabarekin ZIUan zeudela, iruditu zitzaizkien gaixotasuna oso prozesu bakartia zela familientzat», esan du Garaik. «Inguruko laguntza izan zuten, baina ikusi zuten bazirela seme-alabak bakarrik zaintzen zizuten gurasoak ere». Hain zuzen, egoera horretan dauden familiei laguntza eskaintzeko sortu zuten elkartea, baita boluntario gisa gaixoak babestu nahi zituztenak sartzeko ere.

Bosgarren aldia du June Sanchez Tolaretxipi bekak. «Juneren gurasoek ikusi zuten ikerkuntza ezinbestekoa dela minbiziaren prebenitzeko prozesuak hobetzeko; bereziki, haurren minbizietan, oso azkar hedatzen baitira», azaldu

du Garaik. «Euskal Herriko Pediatría Elkartearekin hitz egin zuten, eta denen arteko elkarlanari esker sortu zen beka».

Juneren Hegoak elkarteak 17.000 euro banatu ditu bost urtean. «Badakigu bekaren irabazleei ematen diegun dirua ez dela asko, eta ez dela, inola ere, ikerkuntzak merezi duen beste». Garaik uste du instituzioek diru «gutxi» ematen dutela minbiziaren ikerketarako. «Ikerlariak beti esaten digute oso zaila dela proiektuak egitea, finantzaketa oso apala baita. Uste dut beti eman daitekeela gehiago, eta eman egin behar dela, gainera; bestela, ez dago itxaropenik».

Laguntzeko prest

Azken hamabi urteotan, elkarteak modu askotan lagundu die haur gaixoei eta haien familiei. «Batzuei medikamentuak erosteko laguntza ematen zaie, eta beste batzuei, aholkularitza. Bada elkarteko boluntario baten konpainia ematen zaion familiarik ere: ospitalera bertara joateko, etxean utzi behar duten beste haur bat zaintzeko...». Halere, Garaik esan du elkartea «txikia» eta «herrikoia» dela, eta dituzten «baliabide urriekin» egiten dutela lan guztia.

Lehenago laguntza jaso izan duten familiak daude elkartean. «Batzuk babesa jaso ondoren egiten dira elkarteko kide, prest baitaude eurek jasotakoa beste batzuei emateko». Elkartea handitu ahala, lan handiagoa egiten dute, eta, beraz, aukera dute laguntza handiagoa emateko. «Beka antolatzen garaian, aurrekontu txikia izaten dugu, baina, azkenean, dirua lortzeko kanpaina abian jarri, eta lortzen dugu kopuru bat ematea».

Dena den, Garairi iruditzen zaio «geroz eta zailagoa» dela jendea inplikatzeko. «Hurbiltasuna erakustea da jendeak elkartearekin harremana izateko giltzetako bat. Azken finean, gaur egun, arazoei ez diegu behar besteko arreta eskaintzen aurrez aurre eduki arte. Saiatzen gara ikusarazten zer lan egiten dugun elkartean eta zeren alde borrokatzen garen». ●

Haurren minbiziaren ikerketak oinarri

Ricardo Lopez Biocruceseko onkologia pediatrikoko saileko kideari eman diote June Sanchez Tolaretxipi beka. Errenteriako Juneren Hegoak elkarteak ematen du laguntza hori, haurren minbiziaren aurkako ikerketak sustatzeko.

Urko Iridoy Alzelai

June Sanchez Tolaretxipi 2013. urtean zendu zen, 2 urte zituela, minbiziak jota. Hori dela eta, Sanchezen gurasoek Juneren Hegoak elkartea sortu zuten, Errenterian. Alabaren omenez egin zuten, baita Gipuzkoan gaixotasun hori pairatzen duten umeen familiak laguntzeko ere. Elkarteak minbiziaren prebentzioaren eta diagnostikoaren aldeko lana egiten du, eta, hori sustatzeko, June Sanchez Tolaretxipi beka antolatzen dute urtero, haurren onkologiako ikerketak proiektu bat diruz laguntzeko asmoz. Jakinarazi berria dute aurtengo irabazlearen izena: Ricardo Lopez, Bilboko Biocruces institutuko onkologia pediatrikoko saileko kidea.

Lopezen proiektua transkriptomikan datza; zehazki, transkriptomika aplikatzen diagnostiko molekularrerako eta nerbio sistema zentralerako tumoreak eta sarkoma pediatrikoak maneiatzeko.

TAPIA energia
EGUZKI ENERGIA PLAKAK
Diseinatu
Instalatu
Mantendu
40
1985-2025
urte zuzendik gertu
943 889 594
www.tapiaenergia.com


Gipuzkoako Foru Aldundia
DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Euskadi, auzolana

**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

Mende laurden bat bertsoa hedatzen

Orain dela 25 urte Legazpin «parranda giroan» bertsoan aritzen zen gazte talde batek Bertso Olariak bertso eskola sortu zuen. Helduen talde bat sortu zuten aurrena, eta haurrena gero.

Laida Goiburua Agirre

Bertsolaritzak izen handiak eman ditu Euskal Herrian, eta, azkeneko hamarkadetan, horretan zerikusi handia izan dute bertso eskolak. Bertsogintzaren transmisioa bermatzeko tresna nagusietakoak dira. Legazpikoak 25 urte beteko ditu aurten: Bertso Olariak-ek.

Hango kide Asier Iriondok esan du «ofizialki» 2000. urtean sortu zutela. Herrian orduan bazen bertso grina, bazen «parranda giroan» bertsoan egiten zuen gazterik, eta, elkarrengana batuta, talde bat egitea erabaki zuten, izaera juridikoduna. Hala sortu zuten Bertso Olariak. «Taldearen izena Aitor Irastortzak proposatu zuen. Asmoa zen bertso eskolak lotura izatea Legazpiko ola gizonekin, Mirandaolarekin...», dio Iriondok. «Gero taldearentzako moduko logo bat egin zuen Iñigo Aranburuk, eta hala hasi ginen».

Helduentzako eskolak ematen hasi ziren aurrena, eta hamabost bat lagun elkartzen ziren bertsoan egiteko. Ordurako, herriko Haztegi ikastola hasia zen haurrentzako bertso eskolak ematen, eskolaz kanpoko ekintza gisa. Bertso Olariak sortu zutenean, bateratu egin zituzten Haztegiko eta bertso eskolako eskaintzak. «Bertso eskolak helduei ematen zizkien klaseak, eta gero hartu zuen umeekin ere lan egiteko ardura».

Harrezkeroztik, heldu zein haur, herritar ugari aritu dira Bertso Olariak-en bueltan lanean. Iriondok esan du sorrera garaian «asko» egiten zutela bertsoan, eta iruditzen zaio azken urteotan helduek ez dutela lehen bezainbeste egiten. «Helduak ekitaldien antolakuntzan

aritzen dira gehienbat». Umeei dagokienez, urtero eman dute izena hainbatek. Pandemiaren ondoren zailtasunak izan zituzten haurren taldea eratzeko garaian, baina lortu zuten eustea: «Handiagoa edo txikiagoa, urtero lortu dugu umeen taldea ateratzea. Pandemia garaian, bertso eskola bertan behera geratu zen, eta urte batzuetan kostatu egin zaigu umeen taldea eratzea. Dena dela, azkeneko bizpahiru urteotan lortu dugu».

Bat-batekotasunari begira

Ane Beloki legazpiarra irakasle dabil Bertso Olariak-en. Plaza ugaritan parte hartu du, bai eta txapelketetan ere. Belokik esan du etxetik datorkiola bertsozaleatasuna, aitona bertsoan aritu baitzen garai batean, eta zalea du aita. 10 edo 11 urte inguru zituela hasi zen Bertso Olariak taldean, ikasle moduan. Handik zazpi bat urtera sartu zen irakasle, Beasaingoan. Legazpin hasi zen gero, baita Tolosaldeko Harituz bertso eskolan ere. Egun, Bertso Olariak taldeko irakaslea da.

Belokik, bertso munduan murgiltzen hasi zenetik hona, eskoletan «aldaketa ugari» nabaritu ditu; bat-batekotasunari dagozkionak, batez ere. «Lehen, hasten ari zirenei neurria eta metrika erakusten zizkieten, eta, orain, zuzenean bat-batekotasuna lantzea bultzatu nahi dugu». Iruditzen zaio teknika horrek balio duela, eta ikasleak gustura aritzen direla. «Ikasleek gehiago gozatzen dute bertsoak bat-batean sortuz, paper batean bertsoak idazten jarduten baino». Bertso Olariak taldeko irakasleak esan du metodologia aldatu egin dela, eta material berria sortu dela. «Askok aldatu dira



Julen Agirreburualde eta Nerea Elustondo, 2009-2010 ikasturtean, Legazpiko Bertso Olariak bertso eskolako ikasle batzuekin. ERRIKARTE AGIRRE



Bertso Olariak taldeko kideak, martxoan, Martxoan Bertsoa lehiaketako finalean. Ane Beloki, ezkerretik hasita lehena. HITZA



«Taldearen izenaren asmoa zen bertso eskolak lotura izatea Legazpiko ola gizonekin, Mirandaolarekin...»

ASIER IRIONDO

Legazpiko Bertso Olariak bertso eskolako kidea

«Lehen, bertsoan hasten ari zirenei metrika erakusten zitzaion; orain, bat-batekotasuna lantzea bultzatu nahi dugu»

ANE BELOKI

Legazpiko Bertso Olariak bertso eskolako kidea

eskolak, eta uste dut onerako izan dela aldaketa». Gaur egun, hamarna lagun dabilta Bertso Olariak-en antolakuntzan eta ikasle taldean.

«Ate batzuk zabaltzen»

Belokiren ustez, bertso eskolak dira bertsogintzaren oinarria. Esan du bertsogintza sustatzeko ezinbestekoak direla eskolak, baita jardun horretan gozatu nahi dutenentzat ere. «Bertsotan egiten ikasi nahi duten gazteak trebatzeko espazioak dira, ondarearen transmisioa bermatuko dutenak eta aurrera begirako ate batzuk zabaltzen dituztenak». Nabarmendu du taldeko jardun bat dela bertsolaritza, «bakarrik ezin delako eta «asko» duelako hartu-emanetik. «Ezinbestekoa da talde bat izatea. Bertsogintza sustatzeko eta zale direnei espazio bat emateko oso egokiak dira

eskolak. Halako guneetan bertso giroa eta zaleatasuna sortzen dira. Beraz, bide bat egin nahi duenak hor izango du aukera».

Dena den, Belokik esan du Legazpin lehen baino jende gutxiagok egiten duela bertsoan. Nerea Elustondo plazetan eta txapelketetan aritzen da, baita Beloki bera ere. «Bertso Olariak taldeko beste kide batzuk ere aritzen dira plaza puntual batzuetan, baina hortik harago herrian ez dago bertsoan dabilen jende asko».

Nolanahi ere, baikor begiratzeko dio eskolaren etorkizunari. «Orain hamar ikasle daude bertso eskolan, ikusi beharko da datorren ikasturtean zer gertatuko den: jarraitzeko asmoa duten ala ez, talde berriren bat sortuko den ala ez... Saiatuko gara eusten, eta talde berriak sortu behar badira, sortzen». ●

berria
fm

PODCASTA



**Kazetaritza
feminista**
erraitan
eta uhinetan

UXUE **Rey**

ANE

Eslaba

**Hamabostean behin, asteazkenez,
[Berria.eus/podcast](https://berria.eus/podcast) webgunean eta plataformetan entzungai.**

MUSIKA

Andoain Rukula, Gori Gori, Marte Lasarte eta Melenas Dj Set. Bihar, 12:00etan, Zumea plazan.

Andoain Ezezez, Amor Liquido eta Holiday Ghosts. Bihar, 18:00etan, Nafarroa plazan.

Andoain The Black Wizards, Dummy eta A Place To Bury Strangers. Bihar, 21:50ean, Nafarroa plazan.

Beasain Trannce. Gaur, 22:15ean, Bideluze plazan.

Beasain Irtenbide, The Claytons eta La Txama. Gaur, 22:30ean, txosnagunean.

Beasain Zea Mays. Gaur, 23:30ean, Bideluze plazan.

Beasain Balantza erromeria, 48280 eta Rebel Noise. Bihar, 22:00etan, txosnagunean.

Beasain Sune. Bihar, 23:00etan, Bideluze plazan.

Bergara Harrikada, Frigo, Bihurri Dub Sound System eta Yare Sound. Gaur, 18:00etan, txosnagunean.

Bergara K-PO eta Blind. Gaur, 20:30ean, txosnagunean.

Bergara Sedientos de Cumbia. Gaur, 20:30ean, txosnagunean.

Bergara Kokein. Gaur, 23:00etan, San Martin plazan.

Bergara Mutiko, Embresko eta Denso eta Dj Rubi. Bihar, 21:30ean, txosnagunean.

Bergara Burutik, Bengo, Kitziki erromeria eta Deros. Bihar, 22:30ean, txosnagunean.

Bergara Tremenda Jauria. Bihar, 23:00etan, San Martin plazan.

Bergara Izaki Gardenak. Igandean, 19:00etan, txosnagunean.

Bergara Trikidantz erromeria. Astelehenean, 20:15ean, plazan.

Bergara No Limits, Dj Faisan eta Dj Alan Payne. Astelehenean, 22:00etan, txosnagunean.

Bergara Joselu Anaiak. Astelehenean, 23:00etan, Espoloian.

Bergara Merina Gris eta Ganibet. Astelehenean, 23:00etan, txosnagunean.

Bergara Puro Relajo. Asteartean, 20:00etan, San Martin plazan.

Donostia Kaskezur eta Hiuzz. Gaur, 20:30ean, Dabadaban.



JAVIER NAVAL

‘Arizona’ antzezlanak gaur Zarauzko Modelon

ZARAUZK– Margaret eta George Arizonako mugaraino heldu dira. Misio bat bete nahi dute: bizilagunengandik banatzen dituen mugaraino joan, eta hura defendatzea. Horixe du abiapuntu *Arizona* Txalo antzerki konpainiaren lan berriak. Bi aktore egongo dira oholtzan: Aitziber Garmendia eta Jon Plazaola —biak, argazkian—. Urtarrilaren 25ean estreinatu zuten, Barakaldo antzokian (Bizkaia). Zarauzko Modelon izango dira gaur, 20:00etan.

Donostia Natatxe orkestra. Gaur, 23:30ean, Larratxoko plazan.

Donostia Peachy Joke eta Bobbi Relac. Bihar, 20:00etan, Kutxa Fundazioa Klubtan.

Donostia El Negro, Snkt eta Txiltxoko. Bihar, 22:00etan, Larratxoko eskolan.

Donostia Sonakay. Igandean, 19:00etan, Larratxoko plazan.

Donostia The Thing. Igandean, 20:30ean, Dabadaban.

Donostia Jack Broadbent. Asteartean, 20:00etan, Dabadaban.

Donostia Electric Eel Shock. Asteazkenean, 20:00etan, Dabadaban.

Eibar Rythmachin. Bihar, 20:00etan, Zai Zoi tabernan.

Elgoibar *Queen gaua*. Elgoibarko udal musika banda. Igandean, 22:30ean, Kalegoien plazan.

Eskoriatza Emeki erromeria. Bihar, 20:30ean, plazan.

Hondarribia Izaro. Joseina Etxeberriarekin. Igandean, 18:00etan, Itsas Etxea auditoriumtan.

Tolosa Desert Smoke. Gaur, 22:00etan, Bonberenean.

Tolosa Milledenials. Igandean, 20:00etan, Bonberenean.

Zarauz Saman Goien. Igandean, 12:30ean, Arrano tabernan.

ANTZERKIA

Alegia *Argi dago*. Intxurre antzerki taldea. Ostegunean, 20:00etan, zineman.

Beasain Iago magoa. Bihar, 17:30ean, txosnagunean.

Beasain *Mute*. Orain Bi konpainia. Igandean, 17:30ean, Erauskin plazan.

Bergara Bakarritzeta saioa. Antton Telleria eta Asier K. Igandean, 20:00etan, txosnagunean.

Bergara *Pirata Garapataren abenturak*. Kukubaso eta Patata tropikala konpainiak. Asteartean, 17:00etan, txosnagunean.

Donostia *Txanpon baten truke*. Txintxeta, Klipa eta Txorrokilo. Gaur, 17:30ean, Larratxo plazan.

Donostia *Izarrak buruan eta eseri munduan*. Zurriola antzerki eskola. Gaur, 19:00etan, Imanol Larzabal aretoan.

Donostia *Apocalipticamente correcto*. Luis Piedrahita. Gaur, 21:00etan, Kursaaen.

Donostia Grison Beatbox. Gaur, 21:00etan, Reale arenan.

Donostia *Un cadáver para los*

postres. Donostia Kulturako ikastaroetako ikasleak. Astelehenean, 19:00etan, Imanol Larzabal aretoan.

Donostia *Julieta ETA Romeo*. Oiartzungo gazte sortzaileak. Asteazkenean, 19:00etan, Antzoki Zaharrran.

Donostia *El teatro es un asco*. Binahi konpainia. Ostegunean, 18:30ean, Antzoki Zaharrran.

Donostia *Ertzak*. Soinu performancea. Inko Martin eta Saioa Royo. Ostegunean, 19:00etan, Casares-Tomase-ne kultur etxean.

Erreterria *Heriotzak Eduardo du izena*. Formol laborategia. Gaur, 19:00etan, Niessen kulturgunean.

Erreterria *Paso a paso, la mirada nómada*. Zanguano konpainia. Bihar, 12:30ean, Mikelazulo elkartearen.

Erreterria *Daisy Crazy*. Pez Limbo konpainia. Bihar, 18:00etan, Lekuona fabrikaren.

Erreterria *Torcidxs*. Las Nenas Theatre. Bihar, 20:00etan, Lekuona fabrikaren.

Erreterria *Ametsak & motorrak*. Herri arte eskolako gazteen antzerki taldea. Igandean, 18:00etan, Niessen kulturgunean.

Erreterria *Soy un baile*. Rosa Romero. Igandean,

19:30ean, Lekuona fabrikan.

Zaldibia Punpairez taldearen umorezko emanaldia. Ondoren XAKen kontzertua egongo da. Bihar, 22:00etan, herri antzokian.

Zarautz Arizona. Txalo konpainia. Gaur, 20:00etan, Modelo aretoan.

BERTSOLARITZA

Astigarraga Bertso afaria. Agin Laburu eta Iker Zubeldia. Gaur, 20:30ean, Gure Izarra elkartean.

Hernani Bertso saioa. Unai Agirre eta Aitor Mendiluze. Igandean, 13:00ean, Osinaga bailaran.

Ibarra Bertso saioa. Sebastian Lizaso eta Anjel Mari Peñagarikano. Astelehenean, 19:00etan, Izaskun auzoan.

Itsasondo Bertso saioa. Aner Peritz, Nerea Elustondo, Beñat Gaztelumendi eta Oihana Iguaran. Gaur, 18:00etan, frontoian.

Tolosa Gazteen bertso saioa. June Aiestaran, Aratz Arzelus, Eki Mateorena eta Izar Zelarain. Igandean, 18:00etan, 3 tabernan.

ERAKUSKETAK

Bergara Hitzik gabe dibulgatzea. Carles Pucheri buruzko erakusketa. Urriaren 19ra arte, Laboratorium museoan.

Donostia 100 urte. Modernoa eta/edo garaikidea. Apirilaren 13ra arte, San Telmo museoan.

Donostia Animaliak ontzietan. Abuztuaren 24ra arte, Euskal Itsas Museoan.

Donostia Visiones cuánticas. Abelardo Gil Fournier, Adriana Knouf, Jaione Camborda eta Joan Heemskerck. Igandera arte, Tabakaleran.

Donostia Hamarreko 10 emakume. Gipuzkoako hamar emakume artistaren lanak. Martxe Arana, Elena Arrese, Maria Castilla, Dorleta Diaz, Susana Ferreira, Nisa Goiburu... Gaur arte, LaCentral Art Galleryen.

Donostia Nerea Urrestarazu. Igandera arte, Aiete kultur etxean.



JAGOBA MANTEROLA / FOKU

Bertso saioa gaur
Itsasondoko frontoian

ITSASONDO– Gaur bertso saioa izango da Itsasondon. Lau bertsolari ariko dira: Aner Peritz, Nerea Elustondo, Beñat Gaztelumendi eta Oihana Iguaran. Gai emaille lanak Maitane Legarretak egingo ditu. Saioa 18:00etan hasiko da, frontoian. Irudian, Peritz eta Iguaran, iazko urrian, Irungo Ficoba erakustazokan, Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako saio batean.

Donostia Joan Fontcuberta. *Monstrorum historia*. Joan Fontcuberta. Ekainaren 29ra arte, Kutxa Fundazioa Artegunean.

Donostia Hosto-orrien artean. Erakusketa kolektiboa. Victoria Arkaia, Txus Sanz, Cristina Sanchez, Irene Merino, Arri Bidasoro, Karmele Agirrezabal eta Arantza Albisu. Ekainaren 15era arte, Kristinaenean.

Donostia Pasabide bertikala: heriotzaren heriotza. Garazi Navas. Abuztuaren 17ra arte, Tabakaleran.

Donostia Situ-akzioak. Anna Irina Rusell. Uztailaren 27ra arte, Tabakaleran.

Donostia Birika bezain elastikoa. Anna Irina Russell. Uztailaren 27ra arte, Tabakaleran.

Donostia Atzokoak gaur: Herri musikaren artisauak. Ekainaren 29ra arte, San Telmo museoan.

Getaria Cristobal Balentziaga. *Teknika, Materia eta Forma*. Urtarrilaren 11ra arte, Cristobal Balentziaga museoan.

Tolosa Margotzen hasi zen neska hura. May Colmeneroren pinturak. Ekainaren 24ra arte, 3 tabernan.

Zarautz Munstroak. Asuntzi Martinezen argazkiak. Ekainaren 29ra arte, Photomuseumen.

DANTZA

Andoain Amama. Aukeran dantza konpainia. Igandean, 12:00etan, Bastero kulturgunean.

Azkoitia Hawaiian beat. Born To Dance taldea. Igandean, 12:00etan, Baztartxo antzokian.

Donostia ...todas esas cosas dentro de las cosas que llamamos cosas escondidas en.... Jesus Rubio Gamo. Bihar, 19:30ean, Victoria Eugenia antzokian.

Donostia Nondik Abiatu Inora. Nabiga kolektiboa. Entsegu irekia. Asteartean, 18:00etan, Victoria Eugenia antzokian.

Erretereria Erreka ondoan, bi gezur. Mari Zaunka konpainia. Gaur, 20:30ean, Lekuona fabrikan.

Zumarraga Nee. Cielo Raso konpainia. Gaur, 20:15ean, Zelai Aritzi aretoan.

HITZALDIAK

Arrasate Hitz egin dezagun suizidioaz. Enrique Saracho. Asteazkenean, 18:00etan, Kulturaten.

Ataun Troskaetako hartzak eta Ataungo faunaren bilakaera.

Trinidad Torres eta Aritza Villaluenga. Ostegunean, 18:30ean, Barandiaran museoan.

Tolosa Gure zinema: zientzia fikzioa?. Izaskun Arandia eta Josu Martinez. Elkarrizketatzailea: Garazi Karrera. Bihar, 12:00etan, Zerkausi azpian.

IKASTAROAK

Azpeitia San Juan edo Zazpi belar ukendua. Garbiñe Larrea. Asteazkenean, 18:00etan, Azoka Plazan.

BESTELAKOAK

Azpeitia Galbahea poesia errezeitaldia. Lander Bilbao, Juanra Madariaga, Josu Landa, Morau, Oier Guillan, Ainara Lasa, Gorka Urbizu, Harkaitz Cano, Iratxe Retolaza, Mikel Elorza... Igandean, 18:00etan, Sanagustin kulturgunean.

 **EUSKAL HERRIKO KULTUR EKITALDIEN AGENDA**
berria.eus/agenda.html



Ahalduntzea ospatzeko plaza bat

- Hogei urte bete ditu Hernaniko Emakumeentzako Jabetze Eskolak.
- Aitzindarietako izan zen. Urteurren festa egingo dute gaur, Kulturarteko Plaza Feministan.

Miren Mujika Telleria

Aldaketa pertsonal eta kolektiboa gauzatzeko prozesua da jabetzea, bai eta «sistemak emakumeengan duen eraginaz konturatzeko» ere. Hernaniko Emakumeentzako Jabetze Eskolak uste du horretarako nahitaezkoa dela hainbat faktore elkartzea, hala nola «emakumei maila pertsonalean gertatzen zaiena ulertzea, eskubideak ezagutzea, informazioa eta baliabideak eskura izatea, nork bere ahalmenak lantzea eta autonomia, kontzientzia eta ahalmen kritikoa izatea». Jabetzea

prozesu pertsonal bat dela esan du Itsaso Lekuona Berdintasun zinegotziak, inork ezin duela beste inor jabetu, baina aldi berean, ahalduntzeak kolektiboa izan behar duela dio. «Jabetzeak gure bizitzan autonomia izatea dakar, bizitzari aurre egiteko indarra eta konfiantza izatea eta eraldaketa sozialean parte hartzea». Uste du erakundeek emakumeen eta emakume taldeen jabetze prozesuak susta ditzaketela, eta, hain zuzen ere, horixe da Hernaniko Emakumeentzako Jabetze Eskolaren asmoa. 20. urteurrena bete du aurten, eta gaur arratsaldean

ospatuko dute efemeridea, Kulturarteko Plaza Feministan.

«Sistemak eremu pribatuetara, erreproduktibora eta zaintzara bideratu gaitu emakumeok, eta Jabetze Eskolaren asmoa beti izan da, besteak beste, eremu maskulinoak ere geure egitea», esan du Lekuonak. Horretarako, eskolak askotariko jarduerak eta ikastaroak eskaini ditu sorreratik hona —irrintzi tailerrak, literatura ekintzak, askotariko dantza saioak, mendi orientazio ikastaroak...—, eta helburu bera izan du beti: emakumeak ahalduntzea, haien arteko sareak ehuntzea eta

kontzientzia feminista sustatzea. Eskolak jasota dauzkan erregistroen arabera, hogeitun urtean 2.000 emakumek baino gehiagok parte hartu dute jardueretan.

Udalak abiatua

Hernaniko Udaleko Berdintasun Sailak abiatu zuen Jabetze Eskola, 2005ean. Gipuzkoan gisa horretako proiektuen artean aitzindarietako bat da Hernanikoa, orduan ez baitzegoen halakorik herrialdean. Lekuonak dio proiektua asko hazi dela ordutik hona, eta bereziki azken urteetan. Izan ere, 2021ean, Kulturarteko

Plaza Feminista ireki zuten herrian, Florida auzoko 28. zenbakian, eta, harrezkerotik, hango eskaintzaren parte da Jabetze Eskola. «Urtez urte joan da izaera hartuz, baina azken urteotan proiektua zabaltzea lortu dugu, Kulturarteko Plaza Feministak egitura sendotu duelako», esan du Berdintasun zinegotziak. «Espazio hau dugunetik, eskaintza handitu egin da, eta emakumeen parte hartzea areagotu».

Kulturarteko Plaza Feminista irekita dagoenetik, gutxienez berrehun andre eman dute izena urtero. Kasu baterako, 2023-



Hernaniko Kulturarteko Plaza Feministaren ataria. HITZA



Bi andre, Gure herriko señoarak erakusketari begira, otsailean, Hernaniko Kulturarteko Plaza Feministan. HERNANIKO JABETZE ESKOLA



«Hernaniko Jabetze Eskolaren asmoa beti izan da, besteak beste, eremu maskulinoak ere geure egitea»

«Jabetze Eskolaren urteurren festarekin indarrak batu nahi ditugu datorren urtean jarduera gehiago egiteko»

ITSASO LEKUONA
Hernaniko Berdintasun zinegotzia

↑ Hainbat emakume, Hernaniko Emakumeentzako Jabetze Eskolaren 20. urteurren festa iragartzen, maiatzaren 22an, Kulturarteko Plaza Feministan. HERNANIKO JABETZE ESKOLA

2024ko ikasturtean 693 emakumek parte hartu zuten hango ikastaro eta tailerretan. Urteurrena ospatuko dute gaur, 17:30ean. Berdintasun zinegotziak uste du «ospakizun eder» bat merezi duela Jabetze Eskolak. Prest dituzte horretarako beharrezkoak diren osagaiak. Irrintziek, zaghareetek eta ezgariak —beste herrialde batzuetan egiten diren irrintziaren antzeko oihuak— zabalduko dute egitaraua. Ondotik, dantza saio gidatua izango da, Jenny Perlazarekin. «Asmoa da taldean gorputzak mugitzea eta askatzea», esan du

Lekuonak. Karaoke bat ere prestatu dute, eta horretarako, parte hartzaileek gustuko duten kantua aukeratu ahal izango dute, aurretik bete beharreko galdetegi baten bitartez. Mokadu batekin amaituko dute ospakizuna.

«Festa irekia» gaur
Gaurkoa «festa irekia» izatea nahi dute antolatzaileek, bai eta Kulturarteko Plaza Feminista hoguei urtean Jabetze Eskolan parte hartu duten emakumeen «topaleku» bihurtzea ere. «Urteurren festarekin indarrak batu nahi ditugu datorren urtean jarduera gehiago egiteko», esan du Berdintasun zinegotziak. «Urte hauek guztiek emandakoaz arituko gara eta elkarrekin ospatzeko eta gozatzeko gunea izango da».

Etorkizunera begira, lanean jarraitu nahi du Hernaniko Emakumeentzako Jabetze Eskolak. Ikuspegi feminista duten ikastaroak programatzen jarraituko dute, bi asmo nagusirekin: aniztasuna hauspotzea eta neska gazteak erakartzea. ●

gorriti | martínez

48 urte baino gehiago leiho eta kanpo-itxitura lanetan Donostia eta Gipuzkoan



Donostia
San Martin, 64
943 464 477

Zarautz
Zigordia, 44
943 130 157

Errenteria
Biteri, 48
943 529 678

Irun
Hondarribia, 39
943 612 446

Tolosa
San Frantzisko, 14
943 650 192

Beasain
Jose Migel Iturrioz z/g
943 165 301

Iturria Biltegiak
Ezurriki, 6 - Irun
943 633 188

KÖMMERLING SCHÜCO

CORTIZO

GEALAN

VEGA

K-LINE

TECHNAL

www.gorritimartinez.com

Odile Bourguignon Goñi

Batera Aske kooperatibak sormen saio bat eta familientzako topaketa bat antolatu ditu Azpeitian, elbarritasunen bat duten gazteentzat. Ane Davila kooperatibaren sortzailea (Eibar, 2000) aritzen da koordinatzaile lanetan eta dinamizazioan. *Lau haizetara* izena du Azpeitian egingo duten tailerrak, eta Gipuzkoan eta Nafarroan zabalduko duten proiektuaren parte da. Saioa ostegunean izango da, 17:30etik 19:30era, Dinamoia sormen gunean. Izena emateko bash@bateraaske.com helbidera idatzi behar da, edo 680-15 57 46 telefonora deitu.

Zer da Batera Aske kooperatiba?

Eredu sozialeko kooperatiba bat da; hau da, ekonomia sozial eta eraldatzailearen esparruan kokatzen dugu geure burua. Aniztasun funtzionala duten gazteekin lan egiten dugun arren, eredu sozialeko ekintzak proposatzea da gure helburua. Prekaritate handia dago esparru honetan, elkarte askok boluntarioen lanarekin egiten dute aurrera, eta diru laguntzei esker irauten dute. Baina eredu hori ez da jasagarria epe ertainera edo luzera. Horregatik, gure kooperatiba profesionalizatzeke, ekonomia sozialaren eremuan egiten dugu lan.

Zein da helburua?

Batera Aske sortu zen aniztasun funtzionala duten gazteei aisialdiaren, hezkuntzaren eta kulturaren eremuetan aukera berriak zabaltzeko. 2019an sormenerako eta mugimendurako laborategi bat sortu genuen: BASH. Asmoa zen ikustea arteak eta metodologia pedagogikoek nola lagundu zeza keten bestelako garapen pertsonal batzuk trebatzen, eta, horretarako, aztertu nahi izan dugu zer dinamika duen zentzurik handiena edo zer dinamika eragiten duen gehien pertsonengan.

Nola garatu da BASH proiektua?

Laborategia Arrasateko Arizmendi ikastolan egin genuen lehenengoz, 2019an. Hortik, aisialdi programa bat sortu genuen, antzeman genuelako behar handia dagoela gaztaroan lagunartean egoteko edo kalera irteteko. Mundu guztiari bezala, gizarteratzeko aukera eskaini nahi diegu aniztasun funtzionala duten gazteei. Gaur egun, aisialdi programak ditugu Eibarren, Elgoibarren, Arrasaten, Aretxabaletan eta Zarautzen, bertako udalekin elkarlanean, eta, aurtan, Iruñean ere egongo gara, proiektu berri bat hasi dugulako, *Lau haizetara* izenekoa.

Zer da Lau haizetara proiektua?

«Inklusioaren teoria errealitatera eraman beharra dago»

ANE DAVILA Batera Aske kooperatibaren sortzailea

Ane Davila Batera Aske kooperatibaren sortzaile eta kideak tailerrak egiten ditu elbarritasunen bat duten gazteekin eta haien senideekin. Azpeitian dute hurrengo saioa, ostegunean.



ANDONI CANELLADA / FOKU



SOLASEAN

Helburua da familia eta partaideen beharrak entitate publiko eta kulturaletara hurbiltzea. Uste dugu hutsune handi bat dagoela, udalek familien eta partaideen beharren berri emateko eskatzen baitigute. Baina udalek ez ezik, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Nafarroako Gobernuak ere horretaz hitz egitea nahi dugu.

Nolakoak dira tailerrak?

Topaketak egiten ditugu familiekin eta partaideekin, eta sormena

lantzea izaten da helburua, parte hartzea nahiz elkarlana sustatuz. Alde batetik, familiekin mahai inguru bat proposatu ohi dugu, elkarrizketa baten bitartez bizipen pertsonalak elkarbanatzeko eta euren artean sare bat osatzeko. Aldiz, gazteekin inklusioan oinarritutako eredu sortzaile bat izaten dugu. Azken finean, gerta liteke pertsona batek gauzak errazago adieraztea antzerki bidez edo musika bidez, elkarrizketa formal baten bidez baino. Hala, herri bakoitzean bi topaketa egin ohi ditugu, bakoitza bi ordukoa; normalean egun berean.

Herriz herri zabiltzate.

Gure helburua da 2025 eta 2026. urteetan hamasei herritatik pasatzea; zortzi bider Gipuzkoan, zortzi



«Mundu guztiari bezala, gizarteratzeko aukera eskaini nahi diegu aniztasun funtzionala duten gazteei»

«Gerta liteke pertsona batek gauzak errazago adieraztea antzerki bidez edo musika bidez, elkarrizketa bidez baino»

bider Nafarroan. Oraingoz, bi egin ditugu: lehenengoa, Elgoibarren eta bigarrena, Iruñean. Hirugarrena Azpeitian izango da.

Zer erantzun izan du proiektuak?

Familiekin sumatzen dugu espazio seguru batean lasai hitz egiteko beharra dutela; euren zalantzak eta nahiak entzungo diren inguru bat behar dute. Jakin nahi izaten dute zeintzuk diren aisialdirako helburuak, eta kontatu nahi izaten dute, kultur irisgarritasunari dagokionez, zer falta den herrietan. Hirietatik kanpo gehiago egiteko eskatu ohi dute familia askok; izan ere, inklusio proiektu gehienak hiriburuetan izaten dira. Gainera, aisialdi eta kultur arloan jarduten badugu ere, zeharkako gaiei ere garrantzia ematen diegu; hala familien zaintza lanei, nola helduaroan murriztu ohi diren laguntzei.

Ikerketa bat abiatuko duzue proiektuaren emaitzekin.

Topaketez gain, hausnarketa kolektibo bat abiatu dugu gazteekin, eta gure artean. Hala, tokian tokiko beharrak aztertzen ari gara, baita Espainiako Estatuan nahiz estatutik kanpo dauden inklusiorako joerak aztertzen ere. Zer gertatzen ari den jakin nahi dugu, eta ikertu zer izan daitekeen eredu; bai inspirazioa hartzeko, bai entitate publikoei eredu horiek ezagutarazteko. Jasotako emaitzak dokumentu batean biltzea da asmoa, gero ikerketa hori entitate publikoei emateko nahiz gure komunitatean banatzeko.

Beste eragileekin ere egiten duzue lan, ezta?

Tokian tokiko ekintzak bertako eragileekin antolatzen ditugu. Azpeitian, Kulturaz kooperatibak komunikazioarekin eta azpiegiturarekin lagundu gaitu, eta Marea Urdina eta Atzegiko familiak gonbidatu ditugu etorkizuneko proiektuak elkarrekin diseinatzeko.

Non sumatzen duzue gabezia?

Gero eta gehiago hitz egiten da inklusioaz; baditugu legeak, eta teorian oinarritutako iniziatiba asko jartzen dira martxan. Baina teoria errealitatera eraman beharra dago. Maiz inklusiorako programak diru laguntza puntual batzuetan oinarritzen direnez, ohikoa da kolektibo instrumentaltzatzeke joera. Ez dago jarraitutasunik, eta horrek mesfidantza sortzen du. Aukera berriak sortzea da erronka, baina edo nola ere, aukera horiek gazteekin eta familiekin kontrastatutakoak beharko dute izan. Gainera, rol berriak sortu beharko dira, egiazko inklusiozko espazioak modu profesionalean dinamizatzen jakingo duen jendea behar delako. ●